

ANTXIETA ARKEOLOGI TALDEA

20730 AZPEITIA - GIPUZKOA

CIF G20420816

“ANTXIETA ARKEOLOGI TALDEA“

Lehendakaria : **Jabier Lazkano**

Idazkaria : **Iñigo Olarte**

Partaideak : **Rafael Rezabal - Jabier Maiz - Andrex Maiz - J. Inazio Arrieta
Xabier Azkoitia – Iñigo Arizaga - Ion Uranga – Igone Elejalde
Aitor Suinaga – J.Joxe Agirre – Ane Agirre – Julen Etxaniz**

Hartu emanetarako : **J. Inazio Arrieta (608 087024)
e-mail : antxieta.arkeologi.taldea@outlook.com**

Jabier Lazkano (669 833377)

Iñigo Olarte (606 975968)

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA - KULTURA ONDAREA

2020 Urtean Gipuzkoako lurraldean, arkeologia ikerketak egiteko diru laguntzen deialdia

PROIEKTUA : LABAR ARTEA miaketa sistematikoak. ARKEOLOGIA miaketa orokorrak.

Idatzi honen bidez **2020** urterako arkeologia ikerketak egiteko Proiektua azaldu nahi genuke.

Proiektu hau Antxieta Arkeologi Taldeak antolatu eta gauzatu du, GFArekin elkar lanean.
EHU/UPV ko edo beste zenbait unibertsitateko ikerlariek ere parte hartu liteke proiektu honetan.

LABARRETAKO ARTEA miaketa sistematikoak.

ARKEOLOGIA miaketa orokorrak.

Urola , Deba eta Oria ko bailaratan.

Gipuzkoako Labar Artearekin kultur paisaia berria osatzen ari gara denon artean.

Azken urteetako aurkikuntzak hutsune edo logika falta bat betetzera datoz.

Gipuzkoako lurraldean, lehenago **ALTXERRI (1962)**, geroago **PRAILEAITZ (2006)**, **ASTIGARRAGA (2009)** edo azken aldian, **AITZBITARTE-III-V-IX (2015)**, **AITZBITARTE-IV (2018)** eta Antxieta Arkeologi Taldeak aurkitutako, lehenago **EKAIN (1969)**, eta azken aldian **DANBOLINZULO (2014)**, **ERLAITZ (2015)**, **ASTUIGAINA (2016)**, **SUSTRAIXA (2017)**, **AGARRE (2018)** eta **AIXA (2019)** kobetako Labarretako Artearen azken urteetako aurkikuntzaren esperientzia jarraituz, inguruetako bailaratan miaketak prozedura sistematikoekin eta teknologia aurreratuekin jarraitu beharra dago.

LABARRETAKO ARTE miaketa sistematikoekin jarraitzea garrantzi handia dauka, ikerketa hauekin Gipuzkoako lurraldeak prehistorian zahar eduki zuen garrantzia artearekin, Europatik Iberiar penintsulara lotura kulturalak aztertze eta eguneratzeko.

Aldi berean aurreko urteetan bezala bailara hauetan Arkeologia miaketa lan orokorrak ere egiten jarraituko dugu.

ANTXIETA ARKEOLOGI TALDEA

20730 AZPEITIA - GIPUZKOA

CIF G20420816

UROLA , DEBA eta ORIA bailaratan egingo ditugu ikerketa lanak .

2015 ean markatutako kriterio orokorrekarekin jarraitu nahi dugu.

Prozedura sistematikoari jarraipen bat eman behar zaio ikerketa honetan.

Azken urteetan taldean aztertu eta aplikatu ditugun teknologia aurreratuenak erabiliko dira ikerketa lanak burutzeko :

Topografia digitala, iluminazio Led bereziak, argazki kamera espezializatuak, optika berezia duten betaurrekoak edo argazki tratamendurako software konplexuak.

Lehenengo fase honetan katalogatuak dauden eta ezagutzen ditugun kobazuloak ikertzea da :

Lan zabala dago katalogatuak eta ezagutzen ditugun kobazuloak berriro bilatzen eta begiratzen.

Hauetako koba azkoren topografi konplikatuak kontuan hartuta espeleologi lan gogorra egitea eskatzen du miaketa mota honek.

Alde batetik koba gehienetan itxita dauden galeriekin topatzen ari gara, azken urteetan animaliek, gehienetan azkonarrak, lehen irekiak zauden galeriak itxi egin dituzte eta ez dago jarraitzerik.

Beste aldetik, garai zaharretan, itxita edo kolmatatuak dauden galeriak koba gehienetan ezagutzen ditugu eta naiz eta denak irekitzerik ez egon, plangintza bat egiten ari gara denborarekin teorikoki behintzat interes handiena dutenak irekitzeko, beti ere GFARI baimen egokia eskatuz.

100 bat irteera aurre ikusten ditugu 2020 urtean.

Larunbatetan, igandetan, zubi, jai egun eta oporretan egingo ditugu irteera hauek :

Koba batzuen kasuan begiratu ondoren erabakitzen dugu bukatutzat ematea miaketa eta beste kasu batzuetan berriro begiratzeko edo gehiago aztertzekeo lagatzen ditugu.

Koba baten miaketan, sistematikoki, dudako gauza guztiak dokumentatzen ditugu, argazkiak atera, topografian ondo identifikatu eta gure lan gelara itzultzen garenean software bereziekin lagunduta analisi zehatz bat egiten diegu.

Miaketetan zehar ezagutzen ditugun koba batzuetan itxita dauden barruko galeriak irekitzea baloratzen ari gara :

Lehenago komentatu dugun bezala itxitako galeriak dauzkaten kobarekin lista bat egiten ari gera.

Koba barruko zulaketak oso neketsuak eta denbora luzekoak izaten dira, gehienetan bertako lurra kanporaino atera behar izaten da, galbalian pasatu ondo begiratzeko eta zenbat eta kobaren barrura zulatzen den gero ta distantzia gehiago egin behar da kanpora ateratzeko. Zulaketa lan hauetan lagun ugari behar izaten dira lanerako.

Zulaketa edo desobturazioa eskatzen duten kobak baloratuko dira eta GFARI baimen egokia eskatuko diogu.

ANTXIETA ARKEOLOGI TALDEA

20730 AZPEITIA - GIPUZKOA

CIF G20420816

Honako hauek dira ikertzen ari garan eta ikertuko ditugun aipagarrienak :

UROLA bailara :

Danbolinzulo-II	Zestoa	Ikertzen ari gara.	Lanean
Saletxe Zahar-II	Zestoa	Ikertzen ari gara.	Lanean
Erlaitz-II	Zestoa	Ikertzen ari gara.	Lanean
Amabiturri	Zestoa	Ikertzen ari gara.	Lanean
Ezkuzta	Azpeitia	Ikertzen ari gara.	Lanean

ORIA bailara :

Belakum-I-II-III	Alkiza	Ikertzen ari gara.	Lanean
Zopite-I-II	Alkiza	Ikertzen ari gara.	Lanean
Mendikute	Urkizu	Ikertzen ari gara.	Lanean
Urnietako Leizea	Urnietia	Ikertzen ari gara.	Lanean
Troskaeta	Ataun	Ikertzen ari gara.	Lanean

DEBA bailara :

Urtiagako Leizea	Itziar	Ikertzen ari gara.	Lanean
Arbilgo Leizea	Itziar	Ikertzen ari gara.	Lanean
Agarre	Mendaro	Ikertzen ari gara. Arte Labarra eta Arte igikorra (2018)	Lanean
Aixa	Deba	Ikertzen ari gara. Arte Labarra (2019)	Lanean
Koba Aundi	Arrasate	Ikertzen ari gara.	Lanean

Koba hauetako bakoitzean fase ezberdinak daude :

Batzuetan dauzkagun plano eta koordinada zaharrekin mendian berriro bilatzen ibili beharra dago.

Kasu batzuetan, galerien egoeratik, zulaketa lanak egitea ezin bestekoa da, GFARI baimena eskatzeko planteatzen da.

Beste batzuetan topografia berritu beharra dago, galerien analisi sakon bat egin eta komenigarria ikusten den kasuetan, aurrera zulatzea edo ez baloratzen dugu, topografiaren arabera, GFARI baimen egokia eskatzeko planteatzen dira hauek ere.

Zona batera joaten garenean inguruan miaketa orokorrak egiten ditugu koba berriren bat bilatzen.

ANTXIETA ARKEOLOGI TALDEA

20730 AZPEITIA - GIPUZKOA
CIF G20420816

AIXA – Itziar - Deba - 2019



Azpeitia 2020 ko Apirilak 16

ANTXIETA ARKEOLOGI TALDEA

Labar Artea

1. EKAIN – Deba - 1969



2. DANBOLINZULO – Zestoa - 2014



3. ERLAITZ – Zestoa - Deba - 2015



4. ASTUI GAINA – Zestoa - 2016



5. SUSTRAIXA – Deba - 2017



6. AGARRE – Mendaro - 2018



ANTXIETA ARKEOLOGI TALDEA

Labar Artea

7. AIXA – Deba - 2019

